| PAU | SARBIDE FROGA | NOTEN IRAUPENA |
|---|---|---|
| FASE OROKORRA | 1. GAZTELANIA eta Literaturako testu baten iruzkina egitea<br>2. EUSKARA eta Literaturako testu baten iruzkina egitea<br>3. ATZERRIKO HIZKUNTZAko testu bat aztertzea. Haren helburua da neurtzea ahozkoaren eta irakurritakoaren ulermena eta idatzizko adierazpena<br>4. Irakasgai komuna. Batxilergoko gai komunetako bat aukeratu behar da: FILOSOFIAren Historia edo HISTORIA.<br>5. Batxilergoko 2. mailako MODALITATEKO GAIA | BETIRAKO |
| FASE ESPEZIFIKOA | Batxilergoko bigarren mailako MODALITATEKO EDOZEIN GAI aukera dezake, fase orokorrerako aukeratu duena izan ezik.<br>**Gehienez lau** gairen azterketak egin ahal izango ditu fase espezifiko honetan. Haien artean lauetatik **bi hoberenak** kontuan hartzen dituzte.<br>Nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu. | 2 URTETARAKO |

## PROBA GAINDITZEKO ZER BEHAR DEN

Batxilergoko notaren eta fase orokorreko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (%60 batxilergoari dagokio eta %40 fase orokorrari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gainditutzat joko da, baldin eta ikasleak fase orokorrean gutxienez 4 puntu lortu baditu.

$$\text{Onarpen-nota} = 0{,}6^* \text{ BBN} + 0{,}4^* \text{ FOK} + p1^* \text{ M1} + p2^* \text{ M2}$$

BBN = Batxilergoko batez besteko nota
FOK = Fase orokorreko kalifikazioa
p1, p2 = espezifikoko azterketetako notak haztatzeko **parametroak**
M1, M2= Fase ESPEZIFIKOKO MODALITATEZKO ASIGNATURAK

## NOTA HOBETZEA

Ikaslea **deialdi batean baino gehiagotan** aurkeztu ahal izango da fase orokorreko kalifikazioa edo fase espezifikoko gairen bateko kalifikazioa hobetzeko. Azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere **aurrekoa baino hobea bada**.